

Euskararen Kontseilu Sektoriala - Ohiko Bilkura -

Data eta lekua:	2018ko martxoaren 20an Udaletxeko Tokiko Gobernu Batzarraren Gela
Hasiera eta amaiera ordua:	18:00-19:20

BERTARATUAK:

Talde politikoak:

LEHENDAKARITZA: Miren Azkarate_EAJ-PNV (Euskarako zinegotzi ordezkaria)
Nerea Txapartegi_EH BILDU
Aitziber San Roman_EAJ-PNV

Elkarteak, Hiritarrak eta Gizarte-ospe bereziko pertsona edo kolektiboak:

Zuriñe Gonzalez_BAGERA ELKARTEA
Josune Otxotorena_BERRITZEGUNEA
Ainhoa Arruabarrena_KUTXABANK
Maite Asensio_URTXINTXA ko ORDEZKARIA
Oihana San Jose_AEK
Andoni Iraola_REALA
Ramon Etxezarreta

Euskara Zerbitzuaren langileak:

Edurne Otamendi (Zerbitzu burua)
Alex Aisa (Atal burua)

EZ ZIREN BERTARATU:

PSE-EEko ORDEZKARIA, ezin etorria adierazi du
BIZARRAINeko ordezkaria
IRABAZIko ordezkaria, ezin etorria adierazi du
ULIAKO AUZO ELKARTEko ORDEZKARIA
LABeko ORDEZKARIA
Felipe Juaristi
EHUko ordezkaria, ezin etorria adierazi du
BATZENeko ordezkaria,
SAN SEBASTIAN SHOPS DONOSTIAko ordezkaria, ezin etorria adierazi du
GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEko ordezkaria, ezin etorria adierazi du
LABORAL KUTXAko ordezkaria, ezin etorria adierazi du

1.- Aurreko bileraren akta onartzea

Aurreko akta onartu da.

2.-2018ko ekintza plana aurkeztea

Lehendakariak urteko ekintza plana zehaztua aurkeztu du. Dokumentazioa banatu da.

3.-Gipuzkoa berdinago akordioaren barruan landu den "Jendaurrean erabili" proiektua aurkeztea

Lehendakariak azaroaren 29an adostu zuten dokumentua aurkeztu du. Bertan Gipuzkoako zenbait erakunde, enpresa eta eragilek jendaurreko hizkuntza jokamoldearen gainean hausnarketa partekatu bat egin dutela jasotzen da eta hainbat urrats aurrera eramateko asmoa adierazi dute. Argi dute bi hizkuntza ofizialak parekatzeko orain baino indar gehiago jarri behar dela eta euskara lehenetsi egin behar dela.

EHBilduko ordezkariak zein konpromiso hartu diren jakin nahi du batetik eta Donostiako Udalak konpromiso horiek aurrera eramateko zein urrats emango dituen bestetik.

Lehendakariak azaldu du konpromisoak hartzea baino irizpideak jarri direla dokumentuan, kontzientzia hartzea eta zer egin daitekeen partekatzea dela helburua. Dinamikak aldatzeko bide bat dela eta hortik aurrera elkarte bakoitzak aukera izango duela bide hori jorratzeko, bakoitzak bere egoeratik abiatuta, helburura iristeko asmoz.

4.-Euskaraldia: 2018an emango diren urratsen azalpena ematea

Zerbitzu buruak azaldu du Euskaraldia Donostian martxan dela: Talde motorra Bagerak eta Euskara Zerbitzuak osatzen dute eta hiriko batzorde eragilearen lehen bilera martxoaren 22an egingo dela San Telmon. Horren ostean, Donostiak izena emango du Euskaraldian.

Bestalde, arlokako bilerak egiten hastea ere aurreikusi da: Hezkuntza, euskaltegiak, merkataritza-ostalaritza, kirola, kultura... Horrez gain, Euskaraldiaren aurkezpen publikoa egiteko asmoa dago Donostian apirilean.

Auzoka ere lanean hasi dira Donostian. Euskara Batzordeak dituzten auzoetan lanean ari dira Euskaraldia sustatzeko asmoz eta gainerako auzoetan ere eragitea aurreikusi da.

Bagerarekin koordinatuta eta elkarlanean aurrera eramaten ari da hori guztia. Horretarako, gainera, hitzarmen bat sinatu dute bi entitateek eta Udalak 40.000 € jarri ditu Bagerako langile bat Euskaraldiko dinamizazio lanetan aritzeko.

5.-Donostiako Udalean Euskararen Erabilera normalizatzeko 5. plangintza aldiaren ebaluazio lanaren egoeraren eta 6. aren aurreikuspenen berri ematea

Zerbitzu buruak adierazi du seigarren plangintza aldiaren diseinurako "Bikain" ereduaren erabiliko dela, udal guztiek tresna metodologiko bera izan dezaten. Plangintza horretan erabileran, lan hizkuntzan, jarri nahi da indarra zerbitzu hizkuntza alboratu gabe noski. Hori da aldaketa aipagarriena.

Bosgarren plangintza aldiaren balantzea "Bikain" ereduaren arabera egingo da. Udal langile guztiei inkesta bat bidali zaie 5. plangintza aldiaren gainean. 600 langile baino gehiagok erantzun dute. Inkesta horien erantzunarekin Siadecok txosten bat egingo du.

Bestalde, Kike Amonarrizek hitzaldi batzuk eskaini dizkie udal zinegotzi eta aholkulariei eta baita Euskara Batzordeko kideei ere. Horrez gain, aldez aurretik aukeraturiko 15 langile elkarrizketatu ditu Kikek.

Informazio hori guztia kontuan hartuko da hurrengo plangintza aldirako. Hortik aurrera, 2018ko ekainaren bukaerarako Tokiko Gobernu Batzordeak seigarren plangintza aldia onartzea da helburua. Aldez aurretik, gai honen berri emango zaie Kontseilu Sektorialeko kideei.

Azkenik hurrengo kontseilu sektorialaren datak eman dira: ekainaren 19an eta azaroaren 13an

Eta horrela, bilera bukatutzat eman da 19:20an.